



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 30a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00015. Foru-lege proposamena, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzeko. Geroa Bai, EH bildu eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00121. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria. Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztu du (4. or.).

—11-25/MOC-00125. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ezagutzera eman dezan zer politika abiarazi diren etxebizitza publikoaren arloan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—11-25/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta gobernu kanpoko erakundeei. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (6. or.).

—11-25/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (9. or.).

—11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (9. or.).

—11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (10. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00015. Foru-lege proposamena, Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu dute, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzeko Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru-lege proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru-lege proposamena,
Ingurumenean eragina duten
jarduerak arautzen dituen abendu-
aren 16ko 17/2020 Foru Legea
aldatzeko**

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan energia berriztagarrien integrazioa egitea, bai eta ekonomia zirkularreko ekimen haiek, modua ematen dutenak ustategietan sortzen diren hondakinak energian edo ongarri organikoetan eraldatzeko, klima-larrialdiari eta lehen sektoreak Europa osoan bizi duen kinka bereziki larriari erantzuteko estrategia bihurtzen dira.

Testuinguru horretan, munta berezikotzat jo behar da biometanoa, energia berriztagarriaren iturria izaki, eta eratorria nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan sortzen diren askotariko hondakin organikoei hurbileko lurralde batean berrerabiliak izateko egiten zaien tratamendu-prozesutik.

Energia-iturri horrek piztu duen interesa hainbestekoa da ezen, gaur egun, Nafarroan tamaina desberdinetako biometanizazio-plantak ezartzeko proiektu ugari baitago Nafarroaren luze-zabaleko kokaleku desberdinetan, garapen-maia oso desberdinetan daudenak.

Ekimen horiek bateragarriak izan behar dira lurralde-oreka jasangarriko printzipioekin, energia berriztagarriko eta ekonomia zirkularreko azpiegitura-instalazioekin konprometitutako udalen interes orokorarekin eta haietako herritarren ongizate eta bizi-kalitatearekin. Izan ere, ekimen horiek jasangarritasuna horren hiru ildoetan bermatu behar dute: ingurumenarena, ekonomiarena eta soziala.

Administrazioak zaindu behar du planta horietako bakoitzak kontrol-sistema zorrotzak ezartzen dituela jasotzen dituen hondakinen jatorriaren nahiz trazabilitatearen gainean, biltegi estalietako kudeaketarako plana betetzen dela, lortzen den ongarria

edo energia ingurune hurbil batean erabiltzen dela, nekazaritza-ustiategiekiko edo hiriguneekiko gutxieneko distantziak errespetatzen direla, trafiko astunaren mugikortasuna kontrolatzen dela eta olfatometriazko neurketa periodikoak egiten direla, exijitzen ahal diren beste betekizun batzuen artean.

Nafarroako Gobernuak jada ekin dio harako foru dekretua izapidetzeari, zeinak arautzen baititu simaur eta digestatoen kudeatzea eta horri loturiko kreditatze- eta kontrol-prozesuak. Onesten denean, giltzarri-izaerako lanabes bat izanen da tankera horretako instalazioen lurralde-ezarpena orekaz egiten dela bermatzeko, eta horrez gain errazteko ezen planta horien tamaina doitu egiten zaiela lurraldeen beharriari eta harrera-ahalmen errealari.

Horregatik, moratoria bat proposatzen da, modua emanen duena ahalik denbora laburrenean plangintza-tresna publiko bat eskueran izatea, zinez eraginkorra. Foru-lege proposamena indargabetuta

geratuko da aipatu dekretua behin betikoz onestearekin.

Artikulu bakarra. Biometanizazio-planta berrietarako ingurumen-baimenerako eskabideak.

1. Bi urteko moratoria bat onesten da, arau honek indarra hartzen duenetik aurrerakoa, Nafarroako Foru Komunitatean biometanizazio anaerobikoko instalazio berriak izapidetzeko. Moratoria horrek ez die eragiten azienda-gorotzen autogestio plantetarako ekimenei, baldin eta horien tratamendu-ahalmena ez bada urteko 10.000 tona baino handiagoa. Moratoria hori amaituko da simaur eta digestatoen kudeaketa arautzen duen foru dekretu berria onestearekin.

2. Moratoria honek halaber eraginen die aurreko puntuan definituriko instalazioei, baldin eta 2023/01/01 baino beranduago aurkeztuak izanik ez bada eman haien gaineko administrazio-bideko baimen-ebazpenik.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00121. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen baita aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria

MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak premiatzen bait aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioaren jarraipena Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Joan den irailaren 18an, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria eta Energiako estatu-idazkari Joan Grizard bildu ziren, Nafarroak energia elektrikoaren arloan duen eskaria aztertzeke, plangintza elektriko berri-rako ezarritako zirriborroarekin alderatuta.

Beste behin gogorarazi behar dugu industriak gure erkidegoaren BPGaren % 32 egiten duela eta, hortaz, gure garapenerako eta gure ongizate-estaturako oinarria dela.

Bilera horretan, estatuak ezetza eman zion Nafarroak egindako eskaerari, eta horregatik aurkezten dugu erabaki-proposamen hau.

Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du aintzat har dezan Nafarroako Gobernuak potentzia elektrikoa dela-eta egindako eskaria eta, hartara, egin beharreko aldaketak egin ditzan plangintza elektrikoaren zirriborroan.

Iruñean, 2025eko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

11-25/MOC-00125. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita ezagutzera eman dezan zer politika abiarazi diren etxebizi- tza publikoaren arloan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita ezagutzera eman dezan zer poli-tika abiarazi diren etxebizitza publikoaren arloan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-tarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafa-rrako Gobernua premia-tzen da ezagutzera eman dezan zer politika abiarazi diren etxebizitza publi-koaren arloan.

Zioen azalpena

Legegintzaldi honetan, etxebizitza-politika publi-koak dira Nafarroako Gobernuaren ekintzaren arda-tz nagusia. Eta hori horrela da etxebizitza-larrialdiko egoeran bizi garelako etxebizitza-arloko politika anti-sozialen ondorioz.

Gauzak horrela, gobernu aurrerakoiek irauli egin dituzte etxebizitza-politikak, espekulazioa alde batera uzten duen eta etxebizitzaren helburu sozialaren aldeko apustu garbia egiten duen eredu-aldaketaren bitartez.

Nafarroa, gainera, aitzindaria izan da bide horretan. Horren erakusgarri dira hartu diren munta handiko neurriak: etxebizitza babestuaren kalifika-zio mugagabea; Etxebizitza Ordainerraza izateko Eskubideari buruzko Foru Legea, zeinak figura berritzaileak jasotzen baititu, hala nola alokairu ordainerraza, edo orain dela gutxi tentsiopeko

etxebizitza merkatuaren zonaldeak deklaratu izana foru-erkidegoko zenbait udalerritan.

Zehazki, tentsiopeko zonalde deklaratu dira 21 udalerrri, Nafarroako biztanleriaren ia % 70 biltzen dutenak. Horrela, gure erkidegoa figura hori aplika-tzen duen bigarrena da Estatuan; horrek espekula-zio-presioa zuzentzea ahalbidetuko du, bai eta pre-zioei eustea eta etxebizitza ordainerrazen eskaintza handitzen laguntzea ere.

Zonalde horiei buruzko neurrien artean daude, besteak beste, alokairuaren prezioak mugatzea, tentsiopeko udalerrietan sustapen publikoa indar-tzea eta udalekin lankidetzan aritzea.

Hala ere, ez da nahikoa foru legea onestea edo tentsiopeko zonaldeak izendatzea. Tresna horiek eraginkorrak izan daitezten, ezinbestekoa da herrita-rrek jakitea zer eskubide dituzten eta zer betebehar hartu behar dituzten beren gain, batez ere etxebizi-tzaren jabe direnek. Informazioa, beraz, ezinbeste-ko baldintza da politika horiek benetan eraginkorrak izatea bermatzeko.

Etxebizitza-politiken arrakasta ez dago soilik Nafarroako Gobernuaren ekintzaren mende, toki-entitateen inplikazioaren mende ere bai baitago. Udalak funtsezko eragileak dira hirigintzaren konfi-gurazioan, lurzorua lagapenean eta etxebizitza-parke publiko handitzeko eta alokairu ordainerra-zerako sarbidea errazteko neurrien aplikazioan.

Nafarroako Gobernuaren (Nasuvinsaren bidez) eta toki-entitateen arteko lankidetzaren ezinbestekoa da etxebizitza babestuaren eskaintza ugaritzea. Albait gehien baliatu behar diren politiken adibide-ak dira lurzoru publikoaren lagapena, tentsiopeko zonaldeetan neurriak aplikatzea eta zerga-tresnak erabiltzea —adibidez, hutsik dauden etxebizitzen gaineko zerga— Foru Komunitateko udalerrri guz-tietan etxebizitza duina izateko benetako eskubi-dea bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazte-riako eta Migrazio Politiketako Departamentua premia-tzen du etxebizitza-politiken komunikazioa indartu dezan, ezagutzera eman daitezten ten-tziopeko zonaldeak, Etxebizitza Ordainerraza izate-

ko Eskubideari buruzko Foru Legea eta herritarren gan eta inplikaturako eragileengan dituen inplikazio praktiko guztiak.

Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko toki-entitateak animatzen ditu etxebizitzako, Gazte-riako eta Migrazio Politiketako Departamentuarekin lankidetzan jardun dezan etxebizitza ordainerrazen

parke publiko bat eraikitzeko, etxebizitza sustatuz, lurzorua Nasuvinsari lagatuz, tentsiopeko zonaldeetan berariazko neurriak aplikatuz edo tresna fiskalak ezarriz, hala nola hutsik dauden etxebizitzak gainera zerga.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Eleduna: Ainhoa Unzu Gárate

11-25/MOC-00127. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta gobernu kanpoko erakundeei

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita finantzaketa-mota oro ken diezaien immigrazio ilegalarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin elkarlanean aritzen diren elkarte eta gobernu kanpoko erakundeei.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, 2025eko urriaren 2ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Spainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren 31. artikuluan jasotzen den tresna da errotzea, zeina Atzerritarrei buruzko Erregelamenduaren 124. artikuluan definitzen baita (1155/2024 Errege Dekretua).

Hasiera batean, ezohiko egoerarako tresna puntual gisa kontzebitu zen, baina, praktikan, erregularizazio arrunterako bide bihurtu da Espainiara legez kanpo sartzen direnentzat.

Azken bost urteetan, errotze familiarragatik bizilekua duten etorkinen kopurua % 650 handitu da, 2020ko martxoan 43.848 pertsona izatetik 2025eko martxoan 328.841 izatera pasatu baita (Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazio Ministerioaren datu ofiziala). Datu horiek gure Nafarroako Foru Erkidegoa ere barne hartzen dute.

Errotzea erregularizazio progresiborako bide nagusietako bat bihurtu da Espainian, bereziki 2020tik aitzina, eta datuek erakusten dute gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dutela. Urte horretatik hona, ministerioaren datuen arabera, 320.000 pertsonak baino gehiagok baliatu dute figura hori.

Horri gehitu behar zaio 2024ko Atzerritarren Erregelamenduaren erreformak ez duela modernizazio teknikorik bilatzen, baizik eta erregularizazio masibo estali bat, zeinak, Elma Saiz ministroaren beraren arabera, gure naziora legez kanpo sartu diren ia milioi bat etorkini ahalbidetuko baitio bere egoera erregulatzea hiru urte eskasean.

Murritz egiten dira baldintzak eta erraztasun gehiago ematen dira berrelkartzearako, eta milioika espainiarrek, aldiz, langabezia, soldata txikiak eta etxebizitzarik eza pairatzen dituzte, eta, mugak sendotu eta nazionalerik lehentasuna eman beharrean, Gobernuak erakartze-efektua elikatzen du, oxigenoa ematen die pertsonen trafikoaren mafiei eta arriskuan jartzen ditu gure auzoetako segurtasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-kohesioa.

Errealitate ukazina da errotzearen figura erregularizazio estali eta masibo bihurtu dela, Espainian legez kanpo egotea saritzen duena eta erakartze-efektua elikatzen duena. Figura horren azpian, hainbat iruzur eta laburbide legal sustatzen dira: etxebizitza-titulurik gabeko erroldatzeak, izatezko bikoteak eta hitzarmenezko ezkontzak, kontrolik gabeko familia-berrelkartzeak eta itxurazko lan-kontratuak. Errotzea abusuak eta iruzurrak sustatzen dituen instituzio bihurtu da, Espainiara legez kanpo sartu direnek erabilia.

Egoera hori amaitu behar da, Espainiara datoren orok modu legalean, ordenatuan, gure lan-merkatuaren beharren arabera eta egokitzeko borondate argiarekin eta gaitasunarekin etorri behar du. Legez kanpo sartzan den inork ezin du inolako laguntza publikorik jaso, eta, jakina, ezin du bere egoera erregularizatu.

Espainian legez kanpo sartzan direnak lehenbailehen bidali behar ditugu jatorrizko herrialdeetara, eta administrazioek amaiera eman behar diote erakartze-efektua bultzatzen duen edo legez kanpoko immigrazio masiboa bultzatzen duen arau orori.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentua errotzearen instituzioa kentzearen alde dago, gure naziora legez kanpo sartu diren pertsonen legezko bizilekua ahalbidetzeko tresna juridiko gisa, eta Espainiako Gobernuak premiatzen du egin beharreko arau-aldaketak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentua gure nazioan legez kanpo sartu diren atzerritar guztiak berehala kanporatzearen alde dago, bai eta legez sartu ondoren delitu larriak egiten dituztenak edo delitu arina bizimodu bihurtu dutenak kanporatzearen alde ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du legez kanpoko immigrazioarekin eta gizakien trafikoaren mafiekin lankidetzan aritzen diren entitate eta GKEen finantzaketa mota oro ken dezan, bereziki gure nazioan legez kanpo sartu diren pertsonen beren egoera erregularizatu ahal izan dezaten laguntzen dutenena.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du egin beharreko legealdaketak egin ditzan, gure nazioan legez kanpo sartu den inork inolako laguntza publikorik jaso ez dezan, eta lehentasun nazionala ezar dezan gizarte-laguntza guztiak eskuratzeko orduan.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00129. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, heldu den osteguneko Osoko Bilkuran, 2025eko urriaren 2koan, eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarbide enpresa publikoa desegin dezan.

Zioen azalpena

Nafarbide sozietate publiko bat da, Nafarroako bost errepide handitan ibilgailu astunak ordainduko dituzten bidesariak kudeatzeko sortu zena: A-1, A-10, A-15 eta A-68 autobiak eta prestazio handiko N-121-A errepidea.

Bide horiek mantentzeaz eta kudeatzeaz eta behar diren inbertsioez arduratuko da.

Sozietateari eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

1. Ordainpekoak izanen diren bost errepide handi horiek eta horien instalazioak bidesari horren bidez mantentzea eta ustiatzea, bai eta azpiegitura horiekin lotutako zerbitzu-mota oro ematea ere, hala nola funtzio- nahiz zerbitzu-eremuak eta garraio-zentroak.

2. Gobernuak egitea erabakitzen dituen azpiegitura horien tarte berriak, hobekuntzak, handitzeak eta luzapenak proiektatzea, eraikitzea, mantentzea, kontserbatzea, finantzatzea eta ustiatzea, berak edo hirugarrenek.

3. Kudeaketa-sistema honen xede izaten ahaliko dira beste autobide eta autobia batzuetako Nafarroako tarteak, egungo emakidak amaitzen direnean eta kudeaketa foru-administrazioaren esku geratzen denean, bereziki A-12 eta A-21

autobiak eta AP-15 autobidea, bai eta azpiegitura horiekin lotutako zerbitzuak ere.

Foru-erkidegoak aurrekontu historikoak izango dituen une honetan, onartezina da garraiolariak beren lanarekin azpiegiturak ordaindu behar izatea, beraiek zergak ordaintzen lagundu dutelako.

Bestalde, enpresa hori sortu zuen inbertsio-eta finantzaketa-planean zehazten da 30 urtean gutxienez 2.600 milioi euroko inbertsioa eginen duela.

UPNren ustez, ausarkeria da sozietate publiko batera desbideratzea obren kontratazioa, aurretiazko kontrolak saihestuz, are gehiago ustelkeriakasuak edo -zantzuak gertatzen ari diren une honetan.

Nafarbide sozietate fantasma bat da gure ustez, bere jarduerari buruzko informazio publikorik ez dagoelako.

Kontuen Ganberak ohartarazi zuenez, inbertsio hori enpresa publiko horretara desbideratzea kontrol-maila jaistea zen, eta, ondorioz, arrisku-maila handitzea.

Horri guztiari gehitu behar zaio sozietate hori sortu zenetik ez duela jarduerarik izan, nahiz eta bi langile dituen kontratatuta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak premiatzen dugu Nafarbide sozietatea 3 hilabete-ko epean desegin dezan:

1.- Uste dugulako bidesarien kobrantza ez dela ezarri behar eta, beraz, sozietate hori egoteak ez duela zentzurik.

2.- Kontuen Ganberak jada ohartarazitako arriskuak saihesteko.

Iruñean, 2025eko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 6ko 15:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 6ko 15:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 6ko 15:00etara arte luzatzea.**

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
